



**Ordainketa-prozedurak 1.001etik
2.000 biztanlera bitarteko
Nafarroako udaletan (2023)**



2025eko ekaina



CÁMARA
DE COMPTOS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
KONTUEN
GANBERA



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

I. SARRERA	3
II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK.....	4
III. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIO MUNTADUNAK	5
III.1 Konklusio orokorrak	5
III.2 Gomendio garrantzitsuenak	6
IV. BESTELAKOAK.....	7
V. UDALEN, ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA SOZietate Publikoen Erantzukizuna	8
VI. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	9
1. GEHIGARRIA. ENTITATE FISKALIZATUEN ORDAINKETA-PROZEDURAK	10
1.1 Alderdi orokorrak.....	10
1.2 Erabilitako ordainketa-prozedurak.....	12
1.3 Udaletako barne-kontrolaren alorreko akatsak	14
1.4 Menpeko entitateen barne-kontroleko akatsak	16
1.5 Faktura elektronikoaren erabilera.....	16
1.6 Auditoretzako beste ohar eta aurkikuntza batzuk.....	17
1.7 Gomendioak.....	19
2. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	20
1. ERANSKINA. ORDAINBIDEEN ETA DIRUZAINZAREN LABURPEN-TAULAK	21
2. ERANSKINA. FAKTURA ELEKTRONIKOAREN ERABILERARI BURUZKO LABURPEN-TAULAK.....	25
3. ERANSKINA. BARNE-KONTROLEKO AKATSEN LABURPEN-TAULAK	29
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK.....	32
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	34





I. Sarrera

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta bere jarduketa-programari jarraituz, ordainketa-prozedurei buruzko fiskalizazioa egin du 1.001etik 2.000 biztanlera bitarteko populazioa duten Nafarroako 21 udaletan.

Landa-lana bi auditoretza-enpresa kontratatut egin zuten, bi auditoretza-teknikariz eta auditore batez osatutako lantalde baten ikuskaritzapean eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Lan honen emaitzak jakinarazi egin zitzaizkien fiskalizaturiko 21 udaletako alkateei, alegazioak aurkeztu ahal izan zitzaten, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezartzen denari jarraituz.

Epea amaituta, Oltza Zendeako alkateak alegazioak aurkeztu ditu. Alegazioak, behin aztertuta, txostenean jaso dira Ganbera honen erantzunarekin batera, eta horrenbestez, txostena behin betiko gisa ematen da.

Eskerrak ematen dizkiegu fiskalizaturiko udal, erakunde autonomo eta sozietate publikoetako langileei, lan hau egiteko eman duten laguntzarengatik.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emaniko datuek eta ehunekoek balio zehatz bakoitzaren biribiltzea adierazten dute beti, eta ez datu biribilduen batura.





II. Helburua, norainokoa eta mugak

Fiskalizazio operatiboko lan honek helburu du ondorioztatzea ea udalek eta haien menpeko entitateek 2023an aplikaturiko ordainketa-prozedurak bat datozen araudi indardunarekin eta finantza-kudeaketa oneko printzipioekin.

Helburu osagarri gisa, eta fiskalizazio horren norainokoaren testuinguruan, konklusio bat adierazten da zerari buruz, ea fiskalizaturiko entitateek 2023an eginiko ordainketak ba ote zegozkien haien betebeharrei, eta kasuko ¹hirugarrenei ordaindu ote zitzaizkien.

Fiskalizazioaren norainoko subjektiboak barne hartzen ditu jarraian aipatzen diren 1.001etik 2.000 biztanlera arteko 21 udalerrriak, bai eta haien sei erakunde autonomoak eta menpeko bost merkataritza-sozietateak ere: Arbizu, Arroitz, Artaxoa, Cabanillas, Cárcar, Dei-erri, Doneztebe, Ezkabarte, Irunberri, Itza, Lakuntza, Lekunberri, Lerin, Mendigorria, Monteagudo, Olazti, Oltza Zendea, Sartaguda, Sesma, Ultzama eta Villatuerta. Fiskalizaturiko 32 entitateen zerrenda 1.1 gehigarrian jasotzen da.

Nahiz eta populazio-tarte beraren barrenean dauden, Fontellasko eta Los Arcosko udalak ez dira fiskalizatuak izan. Horiei buruz, Nafarroako Parlamentuak berariazko fiskalizazio-txostenak eskatu ditu.²

Lanaren azter-denbora 2023ko ekitaldia izan da; baina, kasuan-kasuan, beharrezkoak izan diren egiaztapenak egin dira beste ekitaldi batzuei buruz, ezarritako helburuak hobeki betetzeko.

Gure lana egiterakoan, honako hauek aztertu ditugu:

- Entitate fiskalizatuek erantzundako galdetegiak, arlo administratiboko eta ekonomiko-finantzarioko antolaketa eta kudeaketari eta kontu-hartze zereginaren betetzeari buruzkoak.
- Araudian ezarritako eta/edo praktikan aplikatutako prozedurak, ordainketen kudeatze eta kontrolerakoak.
- Eginiko ordainketen lagin bat.

Auditoretza operatiboko gure lanean egiaztatu dugu kontabilitate-akatsak daudela Artaxo-ako "Virgen de Jerusalén" zahar-etxea kudeatzen duen erakunde autonomoan, zeinak 1.6 gehigarrian zehaztuta baitaude. Zertzelada horrek mugatu egin du norainokoa, 2023an eginiko ordainketei buruzko iritzia ematearen helburu osagarriari dagokionez.

¹ Entitateko langileak, hornitzaileak, kontratistak eta beste hartzekodun batzuk.

² Fontellasko Udalariei buruzko txostena 2025eko maiatzean argitaratu zen.



III. Konklusioak eta gomendio muntadunak

III.1 Konklusio orokorrak

Konklusioak

2023an, 21 udal fiskalizatuek hirugarrenei 45,65 milioiko guztizko ordainketak egin zizkieten; horien ehuneko 73 banku-transferentzien bidez egin ziren, eta ehuneko 13, ordainagiri helbideratuen bidez. Beren aldetik, udal horien menpeko 11 entitateek guztira 4,17 milioiko ordainketak egin zizkieten hirugarrenei.

Entitate fiskalizatuek aplikaturiko prozedurek segurtasun-maila nahikoa ematen dute haien ordainketei buruz, aztertutako 21 udaletako 20tan eta haien menpeko 11 entitateetako lautan.

Menpeko entitateetan, haien tamaina eta administrazio-egitura txikiak ia ezinezko egiten dute segurtasun-maila egokia emateko moduko prozedurak ezartzea kasuan kasuko udaleko organoen eta administrazio-egituraren parte-hartzerik gabe.

Jarraian, fiskalizaturiko entitate desberdinei buruz iritsi ditugun konklusioak adierazten ditugu:

- Udaletan

- o Ordainketei buruzko segurtasun-maila nahikoa ematen dute honako hauetan aplikaturiko prozedurek: Arbizu, Arroitz, Artaxoa, Cabanillas, Cárcar, Deierri, Doneztebe, Ezkabarte, Itza, Lakuntza, Lekunberri, Lerin, Mendigorria, Monteagudo, Olazti, Oltza Zendea, Sartaguda, Sesma, Ultzama eta Villatuerta. Alabaina, entitate horien prozedurek barne-kontrolako akatsak daukate, 1.3 gehigarrian zehaztuak.

- o Irunberriko Udalean aplikaturiko prozedurek, ordea, ez dute ordainketei buruzko segurtasun-maila egokirik ematen, hurrengo atalean zehazten diren barne-kontrolako ahulezia materialak direla-eta.

- Menpeko entitateetan

- o Segurtasun-maila nahikoa ematen dute Artaxoako eta Olaztiko musika-eskolak kudeatzen dituzten erakunde autonomoetan aplikaturiko prozedurek, bai eta Aralar Irratia, SL eta Erburua Olazti, SL sozietateetan aplikatuek ere, zeinak Lekunberriko eta Olaztiko udalen menpekoak baitira, hurrenez hurren. Nolanahi ere, entitate horien prozedurek barne-kontrolako akatsak daukate, 1.4 gehigarrian zehaztuak.

- o Bestetik, hurrengo atalean zehazten diren barne-kontrolaren ahulezia materialak direla-eta, ez dute segurtasun-maila nahikorik ematen Artaxoako zahar-etxea eta Doneztebe, Lekunberri eta Irunberriko musika-eskolak kudeatzen dituzten erakunde autonomoetan aplikaturiko prozedurek, ez eta Askalats Arbizu, SL, Oltzaleku, SL eta Lekunberriko Garpén Elkartea, SL sozietateetan aplikatuek ere, zeinak, hurrenez hurren, Arbizu, Oltza Zendea eta Lekunberriko udalen menpekoak baitira.

Barne-kontrolako sistemen analisiaren testuinguruan, 2023an eginiko ordainketen lagin bat aztertu dugu. Eginiko lanaren norainokoa kontuan harturik, eta 1.6 gehigarrian deskribatzen diren Artaxoako zahar-etxeako kontabilitate-akatsen ondorioz norainokoak pairatzen duen murriztapenaren balizko efektuengatik izan ezik, ez dugu inolako gai muntadunik hauteman, pentsarazten digunik entitate fiskalizatuek 2023an eginiko ordainketak ez direnik entitate horien betebeharrangaitikoak, eta ez zaizkienik helarazi zilegi diren hirugarrenei.





Barne-kontroleko ahulezia materialak

- Irunberriko Udalean, oro har ez dira agertzen gastu-onespenerako eta ordain-aginduetarako beharrezkoak diren sinadurak. Era berean, ez da ikusten barne-kontroleko organoak gastu eta ordainketen aurretiazko fiskalizaziorik ez eta ondotiko kontrolik ere egiten duenik³.
- Eginiko ordainketei buruz ziurtasun-maila egokirik eskaintzen ez duten prozedurak dauzkaten menpeko zazpi entitateetan, oro har ez dago organizazio barreneko eginkizun-bereizketarik; eta horri gehitzen bazaio udaletako barne-kontroleko organoek ez dutela kontrol-ekin-tzarik egiten, nabarmenki areagotzen da arriskua, arauz kanpoko ordainketak egon eta egokiro detektatuak eta zuzenduak ez izatekoa.
- Artaxoako zahar-egoitza eta Doneztebe eta Irunberriko musika-eskolak kudeatzen dituzten erakunde autonomoetan, kudeaketa-arduradunek ordainketak egiten dituzte, baina ez dira ageri gastu-onespeneko eta ordain-agindurako administrazio-egintzak. Era berean, barne-kontroleko organoak ez du gastuari buruz aurretiazko fiskalizaziorik ez eta geroko kontrolik ere egiten.
- Gainera, Artaxoako zahar-etxean kontabilitate-akatsak aurkitu ditugu, 1.6 gehigarrian azaltzen ditugunak eta ez zirenak ez detektatuak ez zuzenduak izan; horrek agerian jartzen du ez dagoela kontabilitatearen ikuskapen egokirik.

III.2 Gomendio garrantzitsuenak

Eginiko lana kontuan hartuta, honako gomendio hauek egiten ditugu:

- *Aurreko eta/edo osteko kontroleko jarduerak egin bitzate barne-kontroleko organoek erakunde autonomoei eta merkataritza-sozietateei buruz; batez ere, ez dagoenean menpeko entitateen barreneko eginkizun-bereizketa egokirik.*
- *Ordainketak egiteko, erabil bitez hirugarrenen fitxategi nagusi batetik abiaturik automatikoki sorturiko transferentzia-fitxategiak, halakoak zeinak behar bezala babestuta egonen baitira baimendu gabeko aldaketen aurrean.*
- *Sinadura mankomunatuak araubidea ezar bedi banku-kontu guztietan.*
- *Organoetan eta lanpostuetan aldaketak izaten direnean, eguneratu bitez banku-kontuetako funtsez xedatzeko baimena duten pertsonen zerrendak, eta egiazta bedi finantza-entitateek egokiro aplikatzen dituztela aldaketa horiek.*
- *Banka elektronikoko erabiltzaile eta gakoak, bai eta, kasua bada, banku-txartelak ere, erabil bitzate finantza-entitateengandik horiek jaso dituzten pertsonak bakar-bakarrik.*
- *Jaulki bitez gastu-onespeneko eta ordain-aginduko ebazpenak udalen eta erakunde autonomoen gastu- eta ordainketa-mota guztietan, baita nominetan eta ordainagiri helbideratu-etan ere, eta behar den kontrola egin beza barne-kontroleko organoak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta aplikatzekoa den gainerako araudiari jarraituz.*
- *Txerta bitez faktura guztiak Fakturen Kontabilitate Erregistroan, jarraituz abenduaren 27ko 25/2013 Legeari, faktura elektronikoa sustatu eta fakturen kontabilitate-erregistroa sektore publikoan eratzekoari (aurrerantzean, FESL).*
- *Azter bedi musika-eskolak erakunde autonomoen bitartez kudeatzen segitzearen egokitasuna, haien tamaina txikia kontuan harturik.*

Beste gomendio gehigarri batzuk ere sartu ditugu 1. gehigarrian.

³ Txostenean zehar, "barne-kontroleko organo" edo "barne-kontrolaren arduradun" deitzen diogu barne-kontrol eta -fiskalizazioaren zeregina legez esleitua duen organo edo pertsonari, berdin delarik zeregin hori kontuhartzaile lanpostu zehatz bati dagokion ala, halakorik ezean, legalki udaleko idazkaritzari esleituta dagoen zeregin hori.



IV. Bestelakoak

- Fiskalizazio-lan honetarako landa-lanaren egile izan dira Auditabe Auditores & Consultores eta Betean Auditoría SL auditoretza-sozietateak, Nafarroako Kontuen Ganberarekin izenpeturiko kontratuak tarteko. Auditoretza-sozietate horiek egindako lanean oinarrituz prestatu du Kontuen Ganberak txosten hau.



V. Udalen, erakunde autonomoen eta sozietate publikoen erantzukizuna

Udaletan, alkatearena da udalaren betebeharrak aitortzearen eta haien ordainketa agintzearen ardura. Diruzainari dagokionez, haren erantzukizuna da udalaren funtsak maneiatu eta zaintzea, barne harturik ordainketak egitea.

Erakunde autonomo eta merkataritza-sozietateetan, bakoitzaren estatutuen bidez esleituta dauzkaten organoenak dira erantzukizun horiek.

Kontu-hartzailatza organoaren erantzukizuna da kontrol-funtzioa eta barne-fiskalizazioa egitea. Funtzio horrek barne hartzen du, udalen eta haien erakunde autonomoen esparruan, izaera ekonomikoko betebeharrak edo gastuak sortzeko modukoak diren egintzen aurretiazko fiskalizazioa, ordain-aginduaren kontu-hartze formala eta ordainketaren kontu-hartze materiala. Halaber, barne hartzen du udalen eta haien erakunde autonomo nahiz menpeko merkataritza-sozietateen kontrol finantzarioa.

Kontu-hartzaile lanposturik ez dagoen kasuetan, udalaren idazkaritzak legalki esleituta dauka kontrol-funtzioa eta barne-fiskalizazioa egitearen erantzukizuna.

Udalaren eta haren menpeko entitateen gobernu- eta administrazio-organoek, zeinek bere esparruan, bermatu behar dute ezen eginiko kudeaketa-jarduera eta -eragiketak bat datozela indarreko arauekin, eta beharrezko bideak paratu behar dituzte, proposaturiko helburuetan eraginkortasuna eta baliabide publikoen erabileran efizientzia eta ekonomia lortzeko. Orobat, xede hori lortzeko beharrezkotzat jotzen dituzten barne-kontrolako sistemak ezarri behar dituzte.





VI. Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da gure fiskalizazioan oinarrituriko konklusio batzuk iristea, udalen, erakunde autonomoen eta menpeko merkataritza-sozietateen ordainketa-prozedura geuk fiskalizatuei buruz.

Konklusio horietara iristeko, Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraituz egin dugu fiskalizazioa, ISSAI-ESen ezarritakoei, eta, batez ere, fiskalizazio operatiboei buruzko ISSAI-ES 300 arauari eta hori garatzeko ISSAI-ES 3000 eta ISSAI-ES 3100 arauari. Jarraitu diegu, orobat, Kanpo Kontrol Organoen Fiskalizazio Gida Praktikoei (GPF-OCEX). Printzipio horiek behartzen gaituzte etika-baldintzak betetzera eta auditoretza halako moldez planifikatu eta exekutatzera non ziurtasun egokia lortu ahalko baita zertaz eta entitate fiskalizatuek aplikatzen dituzten kudeaketa- eta kontrol-prozedurek ziurtasun-maila egokia emateaz entitate horiek araudiari eta kudeaketa finantzario oneko printzipioei jarraituz egiteaz beren ordainketak, bai eta horiek kasuko entitatearen betebeharrenak izateaz eta haien hartzekodunari ordaintzeaz.

Osagarri gisa, lan honetan konklusio bat adierazten dugu, ziurtasun mugatuz, zertaz eta ea entitate fiskalizatuek 2023an eginiko ordainketak haien betebeharrenak izateaz eta kasuko hirugarrenei eginak izateaz. Sektore publikoaren fiskalizazioaren funtsezko printzipioei buruzko ISSAI-ES 100 arauari jarraituz, konklusio horretara iristeko eginiko prozedurak murriztak dira, moduzko segurtasuna lortzeko beharrezkoak direnekin alderatuta. Horrenbestez, fiskalizazioaren konklusio horrek adierazten du ezen, gauzaturiko prozedurekin, ez dela ebidentziarik lortu, fiskalizaturiko aferak kasuko irizpiderik betetzen ez duela ondorioztatu ahal izateko modukorik.

Fiskalizazio bat egiteko, prozedurak aplikatu behar dira, ateratako konklusioei oinarri ematen dien auditoretza-ebidentzia lortzeko. Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du ateratako konklusioei funtsa emateko, kontuan harturik horietako bakoitzari esleituriko segurtasun-maila (moduzkoa edo mugatua), salbu eta txosten honen 1.6 atalean deskribaturiko “norainokoaren muga”ri dagokionez.

José Javier García Logroño auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, behin indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ostean.

*(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak elektroniki-
koki sinatua, orri-bazterrean zehaztutako egunean)*





1. gehigarria. Entitate fiskalizatuen ordainketa-prozedurak

1.1 Alderdi orokorrak.

2023ko urtarrilaren 1ean, gure fiskalizazio-esparruan sartutako 21 udalerriek guztira 30.246 biztanle zituzten; hau da, Nafarroa osoaren ehuneko bost.

Oro har, udalerri horien udal-antolamenduaren osagai nagusiak Osoko Bilkura, Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza izan ohi dira.

Ondoko taulan zehazten dira udalerri horiek 2023ko ekitaldian dauzkaten biztanleriak eta datu finantzario esanguratsu zenbait.

	2023-01-01eko biztanleria	AEG1	ABG1	2023-12-31ko diruzaintza ¹	2023-12-31ko langileria ²
Arbizu	1.126	2.090.644	1.670.689	816.696	8
Arroitz	1.035	1.742.576	1.771.260	301.688	6
Artaxoa	1.772	2.809.291	3.229.696	371.689	22
Cabanillas	1.379	3.127.672	3.350.792	2.828.467	17
Cárcar	1.150	1.663.887	1.978.341	851.174	7
Oltza Zendea	1.836	4.635.083	3.136.937	4.486.551	14
Doneztebe	1.858	2.581.658	2.331.916	1.292.269	24
Ezkabarte	1.837	2.165.392	1.598.953	789.184	12
Itza	1.330	2.731.290	1.359.763	2.162.053	4
Lakuntza	1.297	1.417.292	1.381.534	291.494	17
Lekunberri	1.689	2.892.306	2.871.469	319.163	11
Lerin	1.798	2.432.106	2.445.148	831.071	13
Irunberri	1.326	2.338.640	2.632.309	1.034.581	13
Mendigorría	1.191	1.398.246	1.357.210	478.442	6
Monteagudo	1.102	1.079.117	1.228.908	329.266	6
Olazti	1.483	2.482.208	2.270.119	3.211.649	16
Sartaguda	1.328	2.246.718	2.736.865	1.078.201	14
Sesma	1.226	1.677.143	1.617.890	675.204	10
Ultzama	1.636	2.034.792	2.672.077	607.815	17
Deierri	1.581	2.171.702	1.676.450	1.498.500	5
Villatuerta	1.266	2.056.358	2.051.966	1.534.765	13
Guztira	30.246	47.774.119	45.370.291	25.789.923	255

(1) Datu auditatu gabeak, toki-entitateen urteko kontuetatik lortuak.

(2) Udalak helarazitako datuak (Enplegu Sozial Babestuko programetako langileria ez dago barne hartuta)

Udalen diru-sarrerak eta gastuak 1,1 eta 4,6 milioi bitartekoak dira.

Biztanle bakoitzeko batez besteko diru-sarrera eta gastuak 1.580 eta 1.500 eurokoak dira, hurrenez hurren.

Diruzaintzako 2023ko abenduaren 31ko guztizko saldoak 0,3 eta 4,5 milioi bitartekoak dira. Guztira 25,8 milioi egiten dute.



Gastuen eta ordainketen ehuneko 78 dira “Ondasun arrunt eta zerbitzuak”, “Langileak” eta “Inbertsio errealak” sailetakoak, honako taula honek azaltzen duenez:

Kapitulu ekonomikoa	Udalak, guztira	Batez bestekoa	Gutizkoaren gaineko .%
1. Langileak	11.299.607	538.077	25
2. Ondasunak eta zerbitzuak	13.954.161	664.484	31
3. Gastu finantzarioak	252.036	12.002	1
4. Transferentzia arruntak	6.883.296	327.776	15
6. Inbertsio errealak	9.594.607	456.886	22
7. Kapital-transferentziak	651.408	31.019	1
9. Finantza-pasiboak	1.988.671	94.699	4
Guztira	44.623.786	2.124.942	100

Zerbitzu publikoen kudeaketarako, udal horiek sei erakunde autonomo eta bost sozietate publiko dauzkate guztira, honako taula hauetan zehazten den bezala:

Erakunde autonomoak, 2023					
Udala	Izena	AEG	ABG	Udalaren transferentziak	Langileria 2023-12-31n
Artaxoa	Musika-eskolaren patronatua	58.919	64.516	10.000	9
	Virgen de Jerusalén Zaharren Egoitza	1.463.500	1.375.786	12.424	40
Doneztebe	Musika-eskolaren patronatua	67.699	66.155	27.188	5
Lekunberri	Aralar Musika Eskola	535.286	542.524	119.593	17
Irunberri	Udalaren Musika Eskolaren Patronatua	125.608	136.354	52.839	8
Olazti	Udalaren Musika Eskola	42.746	42.747	25.927	5
Guztira		2.293.758	2.228.081	247.971	84

(*) Udalak helarazitako datuak (Enplegu Sozial Babestuko programetako langileria ez dago barne hartuta).

Erakunde autonomoen betebeharrak aitortu garbiek 2,2 milioi egiten dute. Horien artetik, Artaxoako Virgen de Jerusalén zaharren egoitzarenak nabarmentzen dira, duten bolumenagatik. Gainerako erakunde autonomoak musika-eskolak dira, eta bolumen txikiagoa dute.

Merkataritza-sozietateak, 2023							
Udala	Izena	Negozio-ko-puru garbia	Ekitaldiko emaitzak	Udalaren diru-laguntza	E.L.ko zorpe-tzea	Ondare garbia	Batez besteko plantilla*
Arbizu	Askalats Arbizu, SL (kirol- eta kultura-instalazioen kudeaketa)	291.574	3.522	21.000	-	31.479	5,33
Oltza Zendea	Oltzaleku, SL (kirol- eta kultura-instalazioen kudeaketa)	183.157	0	245.934	-	3.983	8
Lekunberri	Aralar Irratia SL	30.622	1.729	3.300	-	4.187	1
	Lekunberriko Garapen Elkartea, SL (kirol-instalazioen kudeaketa)	947.455	-5.412	154.771	-	6.559	34
Olazti	Erburua Olazti, SL (kirol-instalazioen kudeaketa)	53.637	728,65	113.000	-	19.408	3,08
		1.506.445	568	538.005	-	65.616	51,41

(*) Udalak helarazitako datuak (Enplegu Sozial Babestuko programetako langileria ez dago barne hartuta).

Sozietateek kirol- eta/edo kultura-instalazioen kudeaketan dihardute, sozietateetako batek izan ezik, zeinak irratia bat kudeatzen baitu. Merkataritza-sozietateen gutizko negozio-zifra





garbiak 1,5 milioi egiten du. Negozio-bolumenik eta plantillarik handieneko sozietatea Lekunberriko Garapen Elkartea, SL da, zeina Lekunberriko Udalaren menpe baitago.

Entitate fiskalizatuak guztira 70,2 eta 67,7 milioiko kobrantzak eta ordainketak egin zituzten hurrenez hurren, ondoko tauletan erakusten denez:

	Toki-entitate fiskalizatuak, guztira			Guztira
	Udalak (21)	Erakunde autonomoak (6)	Sozietateak (5)	
2023/01/01eko diruzaintza	23.421.999	218.071	52.128	23.692.198
Kobrantzak, guztira	65.654.394	2.499.327	2.068.369	70.222.091
Ordainketak, guztira	63.286.471	2.339.866	2.076.321	67.702.658
2023/12/31ko diruzaintza	25.789.923	377.532	44.177	26.211.631

Udalen kobrantza eta ordainketek kasuan kasuko guztizkoen ehuneko 93 egiten dute.

Udalen kobrantzen eta ordainketen batezbestekoak, hurrenez hurren, 3,1 eta 3 milioikoak dira. Erakunde autonomoetan eta sozietateetan, berriz, batezbesteko horiek 0,4 milioikoak dira gutxi gorabehera, honako taula honek erakusten duenez:

	Entitate fiskalizatuak batezbestekoak			Guztira*
	Udalak (21)	EEAA (6)	Sozietateak (5)	
2023/01/01eko diruzaintza	1.115.333	36.345	10.426	1.128.200
Kobrantzak, guztira	3.126.400	416.555	413.674	3.343.909
Ordainketak, guztira	3.013.641	389.978	415.264	3.223.936
2023/12/31ko diruzaintza	1.228.092	62.922	8.835	1.248.173


(*) Guztizko zenbatekoak / 21 toki-entitate

1.2 Erabilitako ordainketa-prozedurak

2023an, udalek guztira 45,65 milioiko ordainketak egin zituzten hirugarrenei; bitartean, erakunde autonomo eta sozietateetan, ordainketa horiek 2,17 eta 2 milioikoak izan ziren, hurrenez hurren.



Hurrengo grafikoak erakusten ditu udalek eta haien menpeko entitateek 2023an hirugarrenei ordainketak egiteko erabili zituzten ⁴ ordainbideak.



Iturria: geuk prestatua.

Banku-transferentzia da entitate fiskalizatuen ordainbide nagusia, eta ordainketa-bolumenaren ehuneko 72 egiteko izan da erabilia.

Ordainketen ehuneko 14 ordainagiri helbideratuen bidez egin da. Ordainketa horiek, gehienbat, oinarritzko horniduretarakoak izan dira (argindarra, telefonia eta abar), baina batzuetan zerbitzu periodikoak pagatzeko ere egin dira (adibidez, aholkularitza), bai eta bestelako hornidura eta zerbitzuetarako ere.

Ordainketen beste ehuneko 14 bat beste ordainbide batzuen bitartez egin da, hala nola ordainketa-gutun bidez, edo finantza-entitateek bere kontuan eginiko karguen bidez, ⁵ edo beste batzuen bidez, hala nola txekak.

Bestetik, eskudiruak eta banku-txartelek munta arbuiagarria dute. 2023an 82.019 eta 34.037 euroko pagamenduak bideratu zituzten hurrenez hurren; hots, guztizko zenbatekoaren ehuneko 0,23.

Kontrol, barne-fiskalizazio eta diruzaintzako eginkizunen esleipena

Fiskalizaturiko toki-entitateen artetik, udal bakar batek dauka plantilla organikoan sortuta kontu-hartzaile postua. Beraz, gainerako kasuetan, eginkizun hori udaleko idazkariari egokitzen zaio, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritakoaren arabera (aurrerantzean TAFL).

Diruzaintzako zereginari dagokionez, ezein udalek ez du bere plantilla organikoan jasotzen TAFLren arabera A mailako diruzainik, udal hauetan ez baita aginduzkoa. Udal batean, kontu-hartzaileak betetzen du diruzaintza-eginkizuna, aipatu foru legean jasota dagoenari jarraituz. Beste lautan, idazkaria da eginkizun hori hartzen duena. Hiru udaletan, B mailako zenbait lanposturi esleituta daude, deitura desberdinekin. Kasu batean, udalbatzako kide bati esleituta daude; hamaikatan, administrazio-langileek betetzen dituzte; eta batean, administrari laguntzaile batek.

⁴ Alegia, kanpo utzirik entitate beraren kontuen arteko transferentziak eta formalizazio-bidean zeuden ordainketak.

⁵ Maileguen, komisioren, ordainagiri ordaindugabeak itzultzearen eta antzekoen kuotak.



Bost kasutan, eginkizun-esleipena TAFLeK egiten du, eta beste hamaikatan ageri da berariazko eginkizun-esleipena egin dela, plantilla organikoaren bidez nahiz osoko bilkuraren erabakiz nahiz alkatearen ebazpenez. Bost kasutan, ez dago eginkizunen berariazko esleipenaren agerpenik.

Horri buruz esan behar dugu ezen, TAFLko 244. artikulua arabera, diruzain-lanposturik ez dagoen entitateetan diruzaintza-eginkizunak kontu-hartzaile lanpostuaren parte direla. Horrez gain, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 2/2019 Foru Legearen xedapen iragankor batek ezartzen du kontu-hartzaile lanposturik ez dagoen herrietan, eta eskualdeak eratzen diren bitartean, kontu-hartzaile eginkizunak idazkari-postuaren parte izanen direla. Eta TAFLaren 257.5 artikulua modua ematen du, zenbait kasutan, diruzaintza-eginkizunak funtzionario diren langileek egiteko edo eginkizun horiek toki-entitatearen kideei esleitzeko.

Prozeduren eta ordaintze-lagin baten analisia

Gure lanean deskribatu eta analizatu egin ditugu entitate fiskalizatuak hirugarrenentzako ordainketetarako aplikaturiko prozedurak.

Analisi horren testuinguruan, 2023an eginiko ordainketen berrikuspen bat egin dugu. Zehazki, fiskalizaturiko 23 entitateentzat guztira 2.214 ordainketa berrikusi ditugu, zeinen guztizko zenbatekoak ekitaldian egin diren ordainketen ehuneko 35 egiten baitu, jarraian zehazten denaren arabera:

Ordainbidea	Udalak		Erakunde autonomoak		Sozietateak		Guztira	
	Ordainketak (kopurua)	% Zenbatekoa ²	Ordainketak (kopurua)	% Zenbatekoa ²	Ordainketak (kopurua)	% Zenbatekoa ²	Ordainketak (kopurua)	% Zenbatekoa ²
Ordainketak eskudirutan	205	75	-	-	-	-	205	72
Ordainagiri helbideratuak	298	16	22	3	27	8	347	14
Banku-transferentziak	1.326	47	86	32	79	24	1.491	46
Banku-txartelezko ordainketak	71	54	26	69	12	29	109	52
Beste batzuk	59	2	2	1	1	2	62	2
Guztira	1.959	37	136	19	119	15	2.214	35

(2) Lagin analizatuak egiten duen portzentajea, kasuko ordainbidearekin eginiko ordainketen guztizko zenbatekoaren gainean.

Ondoko apartatuetan aurkezten dira analisi horren konklusio muntadunak, 'Konklusioak eta gomendioak' atalean nabarmendu ditugunez gain.

1.3 Udaletako barne-kontrolaren alorreko akatsak

Egin dugun lanetik abiatuta, 'Konklusioak eta gomendioak' atalean adierazten diren barne-kontrolako ahulezia materialez gain, barne-kontrolaren alorrekoak diren honako akats hauek nabarmentzen ditugu:

Barne-kontrolako akats nagusiak

- Udalek ez daukaten hirugarrenen fitxategi nagusirik, barne hartzen dituenik aurretiaz modu fede-emailean kreditatuak edo komunikatuak izan diren banku-kontuak, ordainketak egitekoak, eta babestuta dagoenik baimendu gabeko aldaketen kontra.



- Oro har, udalen banku-kontuek ezarrita dauzkaten xedatze-araubideek modua ematen dute pertsona bakarraren sinadurarekin jarduteko. Gainera, 3. eranskinean zehazten den bezala, zenbait udaletan badaude banku-kontuak zeinetan pertsona bakarra agertzen baita baimendu gisa; hortaz, berak baizik ezin ditu eragiketak egin eta mugimenduak kontsultatu.

- Udal askotan, zeinak 3. eranskinean zehaztuta baitaude, ez da ageri ordainketa egin aurretik egiten direnik gastuen berrikuspen eta onespena eta ordaintze-agindua. Dena den; kasu horietan, orokorrean aldez ondotik ematen da horren berri, gutxienez ere kontabilitate-dokumentuetan alkatearen eta barne-kontrolaren arduradunaren sinadurak jasoz.

- Cabanillas, Itza, Lerin, Sesma, Deierri eta Villatuertako udaletan, desegokia da banka elektronikoko zerbitzuetako pasahitzen zaintza eta erabilera. Finantza-entitateek horretarako izendatuta dauzkaten pertsonen beste batzuek erabiltzen dituzte, eta horrek eragotzi egiten du eragiketak egiten dituzten pertsonak modu autentikoan identifikatuta geratzea. Lerin, Deierri eta Villatuertako udaletan gauza bera gertatzen da banku-txartelen erabilerari dagokionez.

- Arbizu, Artaxoa, Cárcar, Doneztebe, Itza, Lakuntza, Lekunberri, Mendigorria, Olazti eta Sesmako udaletan, 2023ko abenduaren 31n, udalaren banku-kontuez xedatzeko baimendun gisa ageri ziren zenbait pertsona, zeinek jadanik ez baitzituzten betetzen kontu horiez xedatzeko baimendun izatearen eragile izandako enplegu edo kargu publikoak⁶.

- Doneztebe, Lakuntza eta Sesmako udaletan ez da ageri ez nomina ez kasuko betebeharratorpena onetsi izana, ez eta horien aurretiazko fiskalizaziorik edo ondorengo kontrolik egin duenik barne-kontrolako organoak.

- Monteagudoko eta Deierriko udaletan ez da ageri gastuen aurretiazko fiskalizaziorik ez eta ondorengo kontrolik ere egin zuenik barne-kontrolako organoak, nahiz eta, horietako lehenen, organo horren titularra den ordainketak egiten dituen, diruzain gisa.

- Arbizu eta Arroizko udalek ez zeukaten Fakturen Kontabilitate Erregistroa ezarrita, FESLk ezarritakoarekin kontraesanean, baiona Arroitzen 2024an ezarri zen. Bestetik, Cabanillas eta Itzako udaletan egiaztatu dugu erregistro horretan sartu gabeko faktura ugari zeudela.

- Arbizuko udalak ez du Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Nagusia erabiltzen.

- Arbizuko udalean atzerapen oso handiak gertatu ziren gastu-onespen eta ordainketa-agintzeetan, bai eta haien fiskalizazioan ere. Gogoan izanik egintza horiek ordainketaren ondoren egiten direla, aipatu atzerapenek nabarmenki ahultzen dute kontrolaren eraginkortasuna. Zehazki, 2023ko abenduaren 19, 20 eta 31n hiru ebazpen jaulki ziren, jadanik ordainduta zeuden 192 faktura onestekoak. Faktura horiek ekitaldi hartako urtarila-urria epekoak ziren, eta haien guztizko zenbatekoa 386.963 eurokoa zen; hots, aurrekontuko bigarren eta seigarren kapituluetak guztizko gastuaren ehuneko 41. Zenbateko horretatik, 315.805 euro ziren haur-eskolako zerbitzuaren 10 fakturatakoak.

Barne-kontrolako beste akats batzuk

- Eskudiru-kutxen kudeaketan badaude akatsak kobrantzen eta ordainketen kontabilizazioan; horrez gain, ez da maiztasun egokiko kontaktarik egiten, edo halako kontaktak ez dira behar bezala jasota uzten egokiro sinaturiko akta baten bidez, gutxienez ere urte-amaieran. Zenbait kasutan, eskudiru-kutxaren kontabilitate-saldoak ez dira bertako izakin errealean araberaren eguneratzen. Dena den, haien zenbatekoak ez dira munta handikoak.

- Gastu-onesteko eta ordainketa agintzeko ebazpen batzuetan, barne-kontrol eta -fiskalizazioa eginkizunak esleituta dauzkan idazkariaren sinadurarekin batera joan ohi den eginbidearen testuak haren fede-emaila publiko zeregina bakarrik aipatzen du (esate baterako, "fede ematen dut"), eta ez egintzaren fiskalizazioa kontu-hartzaile zereginaren jardunean egitea.

⁶ Gure fiskalizazio-lana egin bitartean, aipatu udal guztiek jakinarazi dute egoera hori konpontzeko neurriak hartu dituztela.



- Doneztebeko udalean, gastuak osoko bilkurara eramaten dira hark onets ditzan, nahiz eta betebeharrak aitortzearen eta ordainketak agintzearen eskumena zuzenbidez alkateari dagokion. Dena den, geroago sinatu egiten ditu alkateak betebeharrak onespenerako eta ordainketako kontabilitate-dokumentuak.

- Sartagudako udalean hileroko 11 ordainketa egin ziren, guztira 155.905 euroko zenbatekoa egiten zutenak, eta ez da ageri horien fakturarik, ez gastu-onespenik ez eta ordainketa-agindurik ere; hori gero batean agin da, ikasturteari zegokion likidazioa onestean.

3. eranskinak udaletako ordainketa-prozeduren akats nagusien laburpen-taula bat jasotzen du.

1.4 Menpeko entitateen barne-kontrolako akatsak

Barne-kontrolako akats hauek aurkitu ditugu fiskalizaturiko erakunde autonomo eta merkataritza-sozietateetan:

- Banku-kontuek ezarrita daukaten xedatze-araubideak modua ematen du pertsona bakoitzaren sinadurarekin jarduteko.

- Ez dute faktura elektronikorik erabiltzen⁷.

- Barne-kontrolako organoek ez dute haien gainean kontrol finantzarioko jarduerarik egiten.

- Erakunde autonomoek ez daukate Fakturen Kontabilitate Erregistrorik, nahiz eta FESLk kontrakoa dioen.

3. eranskinak fiskalizatu diren erakunde autonomoetako eta merkataritza-sozietateetako ordainketa-prozeduren akats nagusien laburpen-taula bana jasotzen du.

1.5 Faktura elektronikoaren erabilera

Entitate fiskalizatuak faktura elektronikoa dela-eta egin duten erabilera fiskalizatu dugu,⁸ FESLk udalak eta erakunde autonomoak behartzen baititu edozein hornitzailearengandik faktura elektronikoak onartzera eta ezinbestean haiek erabiltzera, besteak beste, hornitzaileak sozietate anonimoak edo erantzukizun mugatuko sozietateak direnean, nahiz eta zilegi duten horri buruzko salbuespenak onestea, 5.000 eurorainoko fakturak direnean. Gainera, fakturazio elektronikoak segurtasun handiagoa ematen du faktura-igorlearen autentikotasunari buruz; beraz, lagungarria da arriskuak murrizteko.

Fakturen kontabilitate-erregistroetako datuen arabera (ez ditugu horiek auditatu)⁹, 2023an 23.538 faktura jaso zituzten guztira udalek eta haien menpeko entitateek, zeinen guztizko zenbatekoa (BEZa barne) 27,95 milioikoa izan baitzen, honako taula honetan erakusten diren xehetasunekin:

⁷ Irunberriko musika-eskolaren kasuan izan ezik, bat jaso baitzuen.

⁸ Faktura elektronikoak dira azaroaren 30eko 16/2012 Errege Dekretuak ezartzen duena betetzen dutenak. Errege Dekretu horrek onesten du fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua, FESLk arautzen duen Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Nagusiaren bitartez administrazio publikoek jasotzen dituztenei dagokienez. Horrenbestez, formatu elektronikoan (adibidez, pdf-n) kasuko administrazioaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bitartez aurkezten direnak ez dira faktura elektroniko, ez eta posta elektronikoz bidalitakoak ere.

⁹ 2023an Fakturen Kontabilitate Erregistrorik ez zuten entitateetan, edo erregistro horretan sartu gabeko faktura ugari zeuzkatenetan, aurkezten da kontabilitate-informazioan oinarrituz estimaturiko faktura-kopurua; eta, kasu denean, erregistro horretan dauden datuetan oinarrituta.



Fakturaren zenbatekoa (BEZa barne)	Faktura elektronikoa		Faktura ez-elektronikoa		Fakturak, guztira		Faktura elektronikoa guztizkoaren gainean egiten duen %	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
5.000 euroraino	10.279	4.778.333	10.946	5.579.856	21.225	10.358.190	48	46
5.000 euro baino gehiago	541	12.007.388	258	4.360.550	799	16.367.939	68	73
Udalak, guztira	10.820	16.785.721	11.204	9.940.406	22.024	26.726.129	49	63
5.000 euroraino	1	250	699	329.597	700	329.847	-	-
5.000 euro baino gehiago	-	-	24	221.007	24	221.007	-	-
Erakunde autonomoak, guztira	1	250	723	550.604	724	550.854	-	-
5.000 euroraino	-	-	788	666.441	788	666.441	-	-
5.000 euro baino gehiago	-	-	2	11.395	2	11.395	-	-
Sozietateak, guztira	-	-	790	677.836	790	677.836	-	-
Guztira, 5.000 euroraino	10.280	4.778.583	12.433	6.575.894	22.713	11.354.477	45	42
Guztira, 5.000 euro baino gehiago	541	12.007.388	284	4.592.952	825	16.600.340	66	72
Guztira	10.821	16.785.971	12.717	11.168.846	23.538	27.954.817	46	60

Udalek 22.024 faktura jaso zituzten, guztira 26,73 milioi egiten zutenak. Horietatik, faktura elektronikoen fakturen guztizkoaren ehuneko 49 egiten dute, eta zenbatekoaren ehuneko 63. Zenbatekoa 5.000 euro baino gehiagokoa daukaten fakturen kasuan, portzentaje horiek ehuneko 68 eta 73koak dira, hurrenez hurren.

Erakunde autonomoen guztira 724 faktura jaso zituzten, eta horietatik bakarra izan zen elektronikoa.

Bestalde, merkataritza-sozietateek guztira 790 faktura jaso zituzten, eta bakarra ere ez zen elektronikoa izan. Gogoan izan behar da FESLk ez dituela sozietate publikoak faktura elektronikoa erabiltzera behartzen. Hala ere, irailaren 22ko 18/2022 Legeak, enpresen sorrera eta hazkundera buruzkoak, fakturazio elektronikoko betebeharrak ezartzen ditu, datozen urteotan sozietate publikoetan eragina izan dezaketenak, indarrean sartzen direnean, kasuko erregelamenduzko garapena onetsi ondoren.

2. eranskinak faktura elektronikoen erabilerari buruzko banakako datuak aurkezten ditu, fiskalizaturiko 32 entitateen gainekoak.

1.6 Auditoretzako beste ohar eta aurkikuntza batzuk

Diruzaintzaren kudeaketa

Entitate fiskalizatuetatik batek ere ez dauka diruzaintza-planik.

Zenbait udalek saldo oso handiak daukate beren banku-kontuetan, dituzten likidezia-premiak aintzat harturik, eta ez dute neurririk hartu finantza-inbertsio egokien bitartez errentagarritasun bat lortzeko.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

Gure lana egitean egiaztatu dugu honako akats hauek zeudela faktura-ordainketaren epeari zegokionez:



- Arbizu, Ezkabarte, Lekunberri eta Sesmako udalek ez dute hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatu.
- Doneztebeko udalean, entitateak helarazitako datuen arabera, 2023ko lau hiruhilekoetako batez besteko ordaintze-epea 160 egun baino gehiagokoa izan zen, halatan nabarmenki gaiturik legezko epea, 30 egunekoa.

Kontabilitatea

Auditoretza operatiboko gure lana egitean honako akats hauek egiaztatu ditugu, entitate fiskalizatuak kontabilitatekoak:

- Artaxoako “Virgen de Jerusalén” Zaharren Egoitza

Aldeak daude 2023ko ekitaldi-irakurkarako ‘Bankuak’ ataleko kontabilitate-kontuen saldoen eta egin dugun banku-zirkularizazioan agertzen diren banku-saldoen artean. Bestalde, 2023ko ekitaldia ixtean, “Eskudiru-kutxa” kontabilitate-kontuak kontabilitate-saldo hartzekoduna (negatiboa) ageri zuen, 3.195 eurokoa, zeina, nabaria denez, ezin baita izan eskudiru-kutxa baten izakin errealei dagokiena, izakin horiek ezin dira eta negatiboak izan.

Horri buruz erakundeak helarazitako informazioak ez du modurik eman alde horiek guztiz esplikatzen. Hala ere, adierazten du 2023an “Eskudiru-kutxa” kontabilizatu zirela beste kontu batzuetan erregistratu beharko ziratekeen zenbait kargu eta abonua, bai eta beste batzuk ere, eragiketa errealei ez zegozkien arren kontu hori kontrapartida gisa erabiltzen zutenak “Bankuak” kontuaren saldoa banku-saldo errealei doitze aldera.

Erreferentzia gisa harturik egin ditugun banku-zirkularizazioak, 2022ko ekitaldia ixtean, kontabilitateko ‘Bankuak’ kontuen kontabilitate-saldoak guztira 2.172 euroan zeuden gainbaloratuak. 2023aren amaieran ez zegoen alderik kontabilitate-saldoaren eta zirkularizazioaren artean, 2023ko abenduaren 31n 1.727 euroko kontabilitate-doikuntza bat egin zelako, “Eskudiru-kutxa” kontuan abonua eginez, nahiz eta ez dagokion ezein mugimendu errealei.

Bestalde, erakunde autonomoak eskaini duen eskudiru-kutxaren mugimenduen kontabilitatez kanpoko erregistroaren arabera, badaude 2022 eta 2023koak diren eskudiruzko kobrantza eta ordainketa ez-kontabilizatuak guztira -6.021 euroko zenbateko garbia dutenak. “Eskudiru-kutxa” kontuaren kontabilitate-saldoa, 2022a ixtean, 2.777 euroan gainbaloratuta legoke; eta, 2023aren itxieran, 3.286 euroan azpibaloratuta.

Horrez gain, 2023an kontabilizaturiko betebeharrak asko 2022ko gastuei dagozkiela ere egiaztatu dugu.

- Sartagudako Udala

Udal honetan ez dago zuzeneko harreman argirik banku-kontuetan agertzen diren kobrantza guztien eta kontabilitate-idazpenen artean. “Askotarikoak” kontzeptupean kontabilizatzen dira zenbateko muntadun identifikagaitz zenbait, eta horien xehakapena kontabilitatez kanpo erregistratzen da. 2023an era horretan kontabilizatu dira 558.795 euro 29 kontabilitate-idazpenetan, zeinak, udalak helarazitako informazioaren arabera, mila kobrantza baino gehiagori baitagozkie. Kobrantza horiek banku-kontu desberdinen bitartez eginak dira, baina “Bankuak” kontabilitate-kontu berean kontabilizatzen dira eta, urte-bukaeran, diru-mugimenduak egiten dira “Bankuak” kontabilitate-kontu desberdinen artean, haien saldoak kasuko banku-kontuen saldo errealekin bat etorritzeko.

Kasu guztietan, udalaren kontabilitatean 2022ko eta 2023ko ekitaldien itxieran agertzen diren diruzaintza-saldoak finantza-entitateetan ageri direnekin bat etortzen dira, egin dugun zirkularizazioaren arabera.



1.7 Gomendioak

Gure fiskalizazio-lanaren emaitza gisa, txosten honen III. atalean jasotako gomendiorik muntadunenak direnez gain, honako gomendio hauek egiten ditugu, zeinak lagungarri izan baitaitezke toki-entitateetako ordaintze-prozedurek segurtasun-maila handiagoa ahalbidetzeko:

- *Tankera guztietako gastuen berrikuspena eta onespena jasota utz bedi ordainketa egin aurretik.*
- *Faktura elektronikoaren erabilera susta bedi, eta hori exiji bedi FESLaren arabera hori nahitaezkoa den kasuetan.*
- *Eskudiru-kutxetako kontaketa egin bedi haien erabileraren arabera egokia den aldizka-kotasunez eta, gutxienez ere, ekitaldiaren itxieran; egin bedi horren akta, diruzainak, ordainketa-agintzaileak eta barne-kontrolaren arduradun den pertsonak sinatua, eta kasuko saldoa ipin bedi entitatearen kontuetan.*
- *Kasu guztietan eska bekie, eskudirutan eginiko ordainketak jasotzen dituztenei, kasuko ordainagiria sina dezatela, zeinean agertuko baitira haien identifikaziorako datuak, IFZa barne.*
- *Aurrekontuaren eta/edo urteko kontuen likidazioaren espedientean sar bitez ekitaldiaren itxieran banku-kontuek dituzten saldoen banku-frogagiriak eta banku-berdinkatzeak.*





2. gehigarria. Arau-esparrua

Nafarroako udalen ordaintze-prozedurei aplikatzekoa zaien araudi nagusia honako hau da:

Estatuko araudia

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzekoa.

Foru araudia

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea garatu duena aurrekontuen eta herri gastuaren arloan, eta 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, Nafarroako toki-entitateen aurrekontu-egitura onesten duena.
- Irailaren 21eko 272/1998 eta 273/1998 Foru Dekretuak, zeinen bitartez onesten baitira, hurrenez hurren, Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitatearen Instrukzio Orokorra eta Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Bakuneko Jarraibidea.
- Toki-entitatearen arau berekiak (antolaketa-erregelamendua, aurrekontu-exekuziorako oinarriak, ordenantzak, erregelamenduak...) edo erakunde autonomo nahiz merkataritza-sozietatearenak (estatutuak, barne-erregelamendua...).

**1. eranskina. Ordainbideen eta diruzaintzaren laburpen-taulak**

Udalak										
Udala	Hirugarrenei eginiko ordainketak (eurotan)	Hirugarrenei ordainketak egiteko kanalak (guztizkoaren gaineko %).					Baterako sinadura duten banku-kontuak	Banku-txartelen kopurua	2023ko diruzaintzako egoera-orria ¹	
		Transferentzia	Helbideratzea	Eskudirua	Banku-txartelak	Beste batzuk			2023-01-01eko diruzaintza	2023-12-31ko diruzaintza
Arbizu	1.625.429	70	16	0,22	0,34	13	Bat bera ere ez	2	350.319	816.696
Arroitz	1.918.955	69	18	0,24	0,05	13	Ez guztiak	1 ²	278.363	301.688
Artaxoa	3.098.479	78	12	-	-	10	Bat bera ere ez	5	635.080	371.689
Cabanillas	3.557.613	70	16	0,46	-	14	Bat bera ere ez	1	3.720.965	2.828.467
Cárcar	1.761.645	72	13	0,05	-	15	Bat bera ere ez	-	1.046.230	851.174
Oltza Zendea	3.102.830	84	5	0,10	-	10	Ez guztiak	-	2.970.334	4.486.551
Doneztebe	2.496.369	66	19	-	-	15	Bat bera ere ez	-	1.273.102	1.292.269
Ezkabarte	1.195.450	58	19	0,48	0,28	23	Bat bera ere ez	1	388.836	789.184
Itza	1.456.534	61	19	0,04	-	20	Ez guztiak	2	731.399	2.162.053
Lakuntza	1.381.059	67	16	-	-	17	Bat bera ere ez	1	295.568	291.494
Lekunberri	3.404.854	80	9	-	-	11	Ez guztiak	-	480.033	319.163
Lerin	2.409.468	72	19	0,15	0,02	9	Ez guztiak	1	910.476	831.071
Irunberri	2.735.341	75	14	0,18	-	11	Bat bera ere ez	-	1.097.572	1.034.581
Mendigorría	1.295.960	77	10	0,03	-	13	Bat bera ere ez	2	461.783	478.442
Monteagudo	1.257.126	72	15	0,40	0,06	12	Ez guztiak	1 ²	493.397	329.266
Olazti	2.418.489	68	8	-	-	24	Ez guztiak	-	2.925.650	3.211.649
Sartaguda	2.328.151	72	18	0,10	-	10	Bat bera ere ez	-	1.059.521	1.078.201





Sesma	1.609.357	72	18	0,19	-	9	Guztiak ³	-	615.053	675.204
Ultzama	2.679.289	80	6	-	-	14	Bat bera ere ez	-	1.065.248	607.815
Deierri	1.671.847	82	11	0,08	0,22	7	Bat bera ere ez	2	873.976	1.498.500
Villatuerta	2.241.553	76	13	0,42	0,04	11	Bat bera ere ez	1	1.749.094	1.534.765
Guztira	45.645.798	73	13	0,17	0,04	13		18 + 2 ²	23.421.999	25.789.923

(1) Datu auditatugabeak, toki-entitateen diruzaintzako egoera-orrietatik lortuak. (2) Aurreordainketa-txartela (3) Kreditu-kontu bat izan ezik.





Erakunde autonomoak											
Udala	Erakunde autonomoa	Hirugarrenei eginiko ordainketak (eurotan)	Hirugarrenei ordainketak egiteko kanalak (guztizkoaren gaineko %).					Baterako sinadura duten bankukontuak	Bankutxartelen kopurua	2023ko diruzaintzako egoera-orria	
			Transfrentzia	Helbideratzea	Eskudirua	Bankutxartelak	Bestebatzuk			2023-01-01eko diruzaintza	2023-12-31ko diruzaintza
Artaxoa	Musika Eskolako Patronatua	73.133	50	28	-	-	22	Bat bera ere ez	-	25.821	18.574
	Virgen de Jerusalén Zaharren Egoitza	1.313.646	53	26	-	-	21	Bat bera ere ez	2	161.675	290.792
Doneztebe	Musika-eskolako patronatua	63.420	61	5	-	-	34	Bat bera ere ez	-	4.976	8.962
Lekunberri	Aralar Musika Eskola	541.667	63	3	0,25	0,42	33	Bat bera ere ez	1	10.083	44.461
Irunberri	Udalaren Musika Eskolaren Patronatua	135.868	67	4	-	-	29	Bat bera ere ez	-	12.880	13.022
Olazti	Udalaren Musika Eskola	42.870	68	0	-	-	32	Bat bera ere ez	-	2.636	1.722
	Guztira	2.170.604	57	17	0,16	0,37	25		3	218.071	377.532

(1) Datu auditatugabeak, diruzaintzako egoera-orritik lortuak.





Merkataritza-sozietateak											
Udala	Sozietatea	Hirugarrenei eginiko ordainketak (eurotan)	Hirugarrenei ordainketak egiteko kanalak (guztiz-koaren gaineko %).					Baterako sinadura duten banku-kontuak	Banku-txartelen kopurua	Diruzaintza	
			Transfere- rentzia	Helbi- dea	Eskudi- rua	Banku- txartelak	Beste batzuk			2023-01- 01eko diru- zaintza ¹	2023-12- 31ko diru- zaintza ¹
Arbizu	Askalats Arbizu SL	333.417	37	41	-	-	22	Bat bera ere ez	-	19.192	15.616
Oltza Zendea	Oltzaleku SL	480.644	54	20	-	1,14	25	Bat bera ere ez	1	6.739	3.510
Lekunberri	Aralar Irratia SL	31.721	63	8	-	0,00	29	Bat bera ere ez	-	2.990	473
	Lekunberriko Garapen Elkartea SL	959.988	58	18	0,06	0,21	23	Bat bera ere ez	2	19.845	23.513
Olazti	Erburua Olazti SL	191.684	53	30	-	-	17	Bat bera ere ez	-	3.361	1.064
		1.997.455	53	24	0,03	0,38	23		3	52.128	44.177

(1) Datu auditatugabeak, urteko kontuetatik lortuak.



**2. eranskina. Faktura elektronikoaren erabilerari buruzko laburpen-etaulak**

Udalak	5.000 eurorainoko fakturak (BEZa barne)						5.000 euro baino gehiagoko fakturak (BEZa barne) ¹						Fakturaren guztizkoa ¹						Hornitzailei ordaintzeko batez besteko epea, 2023ko 4. H-an ²
	Guztira		Elektronikoak				Guztira		Elektronikoak				Guztira		Elektronikoak				
	Kopurua	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kopuraren gaineko %	Zenbatekoaren gaineko %	Kopurua	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kopuraren gaineko %	Zenbatekoaren gaineko %	Kopurua	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kopuraren gaineko %	Zenbatekoaren gaineko %	
Arbizu	866	345.039	-	-	-	-	21	612.812	-	-	-	-	887	957.851	-	-	-	-	Dat.ez
Arroitz	1.164	364.336	395	104.847	34	29	36	733.805	23	561.492	64	77	1.200	1.098.141	418	666.339	35	61	15
Artaxoa	1.121	577.394	1.048	548.601	93	95	53	1.397.180	52	1.391.919	98	100	1.174	1.974.574	1.100	1.940.520	93	98	19
Cabanillas	1.711	750.517	477	221.790	28	30	106	1.576.992	54	988.328	51	63	1.817	2.327.509	531	1.210.118	29	52	55
Cárcar	965	508.272	547	269.113	57	53	27	869.124	23	830.555	85	96	992	1.377.396	570	1.099.668	57	80	16
Oltza Zendea	1.118	459.322	459	184.382	41	40	37	1.147.263	37	1.147.263	100	100	1.155	1.606.585	496	1.331.645	43	83	10
Doneztebe	1.109	542.065	530	329.697	48	61	34	621.184	32	607.900	94	98	1.143	1.163.249	562	937.597	49	81	192
Ezkabarte	820	341.398	650	263.242	79	77	24	250.047	24	250.047	100	100	844	591.445	674	513.289	79	87	Dat.ez
Itza	576	243.366	386	193.702	67	80	35	420.332	33	385.947	94	92	611	663.698	419	579.649	69	87	59
Lakuntza	869	327.329	632	233.943	73	71	9	167.437	7	152.845	78	91	878	494.767	639	386.789	73	78	18
Lekunberri	1.248	731.972	185	128.563	15	18	69	786.293	34	310.718	49	40	1.317	1.518.265	219	439.281	17	29	30 ³
Lerin	1.234	807.180	735	425.155	60	53	58	821.170	25	418.207	43	51	1.292	1.628.350	760	843.362	59	52	46
Irunberri	992	598.156	722	391.367	73	65	39	956.422	18	422.744	46	44	1.031	1.554.578	740	814.111	72	52	27
Mendigorría	805	319.062	530	195.483	66	61	30	454.401	23	380.310	77	84	835	773.463	553	575.792	66	74	22
Monteagudo	1.206	405.008	453	117.552	38	29	21	357.036	13	221.618	62	62	1.227	762.044	466	339.170	38	45	13
Olazti	943	397.110	348	124.974	37	31	15	422.799	13	378.566	87	90	958	819.910	361	503.541	38	61	14
Sartaguda	1.042	597.827	583	297.571	56	50	38	1.311.917	22	1.142.748	58	87	1.080	1.909.744	605	1.440.319	56	75	30
Sesma	951	531.048	606	272.628	64	51	35	527.778	29	459.749	83	87	986	1.058.826	635	732.377	64	69	Dat.ez
Ultzama	754	343.880	174	58.126	23	17	48	1.312.463	47	1.299.637	98	99	802	1.656.343	221	1.357.763	28	82	8
Deierri	538	282.166	321	162.554	60	58	27	740.800	10	138.765	37	19	565	1.022.966	331	301.319	59	29	14
Villatuerta	1.193	885.742	498	255.043	42	29	37	880.683	22	518.030	59	59	1.230	1.766.426	520	773.073	42	44	23
Guztira	21.225	10.358.190	10.279	4.778.333	48	46	799	16.367.939	541	12.007.388	68	73	22.024	26.726.130	10.820	16.785.722	49	63	





- (1) Datu auditatugabeak, udaletako fakturen kontabilitate-erregistroetan oinarrituak, osagarri gisa harturik entitatearen kontabilitate-informazioa, arlo honetan akats muntadunak dituzten entitateen kasuan.
- (2) Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea, 2023ko laugarren hiruhilekoko. Udalek helarazitako datu auditatugabeak.
- (3) Estimatu gisa udalak helarazitako datua.





Erakunde autonomoak ¹								
Udala	Erakunde autonomoa	5.000 eurora bitarteko fakturak. (BEZa barne)		5.000 euro baino gehiagoko fakturak (BEZa barne)		Fakturak, guztira		Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea, 2023ko 4. H-an ²
		Kopurua	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	
Artaxoa	Musika-eskolako patronatua	44	13.636	-	-	44	13.636	Dat.ez
	Virgen de Jerusalén Zaharren Egoitza	461	277.272	24	221.007	485	498.279	Dat.ez
Doneztebe	Musika-eskolako patronatua	25	2.510	-	-	25	2.510	158
Lekunberri	Aralar Musika Eskola	145	28.617	-	-	145	28.617	5
Irunberri	Udalaren Musika Eskolaren Patronatua	20	5.799	-	-	20	5.799	Dat.ez
Olazti	Udalaren Musika Eskola	5	2.013	-	-	5	2.013	4
Guztira		700	329.847	24	221.007	724	550.854	

(1) Datu auditatugabeak, erakunde autonomoetako fakturen kontabilitate-erregistroetan oinarrituak. (2) Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea, 2023ko laugarren hiruhilekokoak. Udalek helarazitako datu auditatugabeak.





Merkataritza-sozietateak ¹								
Udala	Sozietatea	5.000 eurora bitarteko fakturak. (BEZa barne)		5.000 euro baino gehiagoko fakturak (BEZa barne)		Fakturak, guztira		Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea, 2023ko 4. H-an ²
		Kopurua	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	
Arbizu	Askalats Arbizu SL	194	119.350	2	11.395	196	130.745	Dat.ez
Oltza Zendea	Oltzaleku SL	55	25.975	-	-	55	25.975	20
Lekunberri	Aralar Irratia SL	43	3.383	-	-	43	3.383	Dat.ez
	Lekunberriko Garapen Elkar- tea SL	196	430.101	-	-	196	430.101	30
Olazti	Erburua Olazti SL	300	87.632	-	-	300	87.632	9
Guztira		788	666.441	2	11.395	790	677.836	

(1) Datu auditatugabeak. (2) Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea, 2023ko laugarren hiruhilekokoak. Udalek helarazitako datu auditatugabeak.

Erakunde autonomoek eta merkataritza-sozietateek jasotako faktura guztiak ez-elektronikoak dira, salbu eta 250 euroko bat, Irunberriko musika-eskola kudeatzen duen erakunde autonomoan jasotakoa.





3. eranskina. Barne-kontrolako akatsen laburpen-taulak

Udalak	Arbizu	Arroitz	Artaxoa	Cabanillas	Cárcar	Oltza Zendea	Doneztebe	Ezkabarte	Itza	Lakuntza	Lekunberri	Lerin	Irunberri	Mendigorría	Monteagudo	Olazti	Sartaguda	Sesma	Ultzama	Deierri	Villatuerta
Ahulezia materialak ¹													X								
Akats nagusiak:																					
Ez dauka hirugarrenen fitxategi nagusirik, baimenik gabeko aldaketen kontra behar bezala babestuta dagoenik.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Ez du Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Nagusia erabiltzen.	X																				
Ez dauka Fakturen Kontabilitate Erregistrorik.	X	X																			
Fakturen Kontabilitate Erregistroan sartuta ez dauden fakturen kopuru handia				X					X												
Badaude zenbait banku-kontu zeinen sinadura-araubideak modua ematen baitu pertsona bakar baten sinadurarekin jarduteko.	U ²	X	X	X	U	X	X	X		X	X	U	X	X	U	X	X	X	U	U	U
2023ko abenduaren 31n eguneratu gabe egondako banku-kontuez xedatzeko baimena zuten pertsonak.	X		X		X		X		X	X	X			X		X		X			
Banka elektronikoko pasahitzen zaintza eta erabilera desegokiak.				X					X			X						X		X	X
Badaude banku-txartelak, haien erabilerarako baimendun gisa agertzen diren pertsonen bestelakoek erabiliak.												X								X	X
Nomina: ez da ageri ordainketaren aurretiko gastu-onespen eta ordain-agindurik.			P ³		P		X	P		X			X				P	X ⁴		P	P
Nomina: ez da ageri ordainketaren aurretiko gastu-fiskalizazio eta ordain-agindurik.			P		P		X	P		X			X	P ⁵	X ⁵	X	P	X	P	X	P
Fakturak: ez da ageri ordainketaren aurretiko gastu-onespen eta ordain-agindurik.	P	P	P		P								X	P	P				P	P	P
Fakturak: ez da ageri ordainketaren aurretiko gastu-fiskalizazio eta ordain-agindurik.	P	P	P		P								X	P ⁵	X ⁵				P	X	P ⁶
Helbideratzeagatik ordaindutako gastuak: ez da ageri ordainketaren aurretiko edo ondoko 50 egunetako gastu-onespen eta ordain-agindurik.	X		X			X		X	X			X	X								
Ez da eskudiru-kutxetako kontaketarik egiten edo ez da halakoen frogarik uzten, urte-amaieran bederen, behar bezala sinaturiko akta bitartez.	X	X	X	X		X		X	X	X		X	X	X	X	X	X	X	X	X	

(1)Txostenaren III.1 atalean deskribatuak. (2) Taula honetan, U letrak adierazten du badagoela gutxienez ere kontu bat, zeinean pertsona bakarra agertzen baita entitatearen ordezkari gisa. Deierriko eta Villatuertako udaletan, egoera hau banku-kontu guztietan gertatzen da. (3)Taula honetan, P letrak adierazten du ezen ordainketaren onespena eta agintzea edo, kasua bada, fiskalizazioa, ordainketaren ostean ageri direla; behintzat, kontabilitate-dokumentuen sinaduraren bidez. (4) Baina banka elektronikozko ordainketak baterako sinaduraren bidez egiten dira, barne harturik alkatea eta barne-kontrolako organoaren titularrak. (5) Hala ere, barne-kontrolaren arduradunak egiten du ordainketa, diruzain bezala. 6) 2023ko uztailetik aurrera. Ez da ageri lehenago egin izan denik. (7) Ordainagiriaren balizko itzulketarako modua emanen lukeen epearen barnean.





Erakunde autonomoak						
	Artaxoa		Doneztebe	Lekunberri	Irunberri	Olazti
	Musika-eskolako patronatua	Virgen de Jerusalén Zaharren Egoitza	Musika-eskolako patronatua Agorreta	Aralar Musika Eskola	Joaquín Larregla Musika Eskola	Musika-eskola
Nomina: ez da ageri ordainketaren aurretiko gastu-onespen eta ordain-agindurik.	P ¹	X	X		X	
Nomina: ez da ageri ordainketaren aurretiko gastu-fiskalizazio eta ordain-agindurik.	P	X	X	X	X	X
Fakturak: ez da ageri ordainketaren aurretiko gastu-onespen eta gastuetarako ordain-agindurik.	P	X	X	X	X	
Fakturak: ez da ageri ordainketaren aurretiko gastu-fiskalizazio eta gastuetarako ordain-agindurik.	P	X	X	X	X	X
Helbideratze bidez ordaindutako gastuak: ez da ageri ordainketaren aurretiko edo hurrengo 50 egunetako gastu-onespen eta ordain-agindurik.	X	X	X	X	X	
Barne-kontrolako organoak ez du kontrol finantzarioko urratsik egin.	X	X	X	X	X	X
Ez da auditoretzarik egin, azken bost urteotan bederen.	X	X	X	X	X	X
Ez dute faktura elektronikorik erabiltzen.	X	X	X	X		X
Fakturen Kontabilitate Erregistroa ez zeukaten ezarrita.	X	X	X	X	X	X
Banku-kontuen sinatze-araubideak modua ematen du pertsona bakarraren sinadurarekin jarduteko.	X	U ²	X	U	X	X

(1)Taula honetan, P letrak adierazten du ezen ordainketaren onespena eta agintzea edo, kasua bada, fiskalizazioa, ordainketaren ostean ageri direla; behintzat, kontabilitate-dokumentuen sinaduraren bidez.

(2) Taula honetan, U letrak adierazten du badagoela gutxienez ere kontu bat, zeinean pertsona bakarra ageri baita entitatearen ordezkari gisa.





Merkataritza-sozietateak					
	Arbizu	Oltza Zendea	Lekunberri		Olazti
	Askalats Arbizu SL	Oltzaleku SL	Aralar Irratia SL	Lekunberriko Gara-pen Elkarte SL	Erburua Olazti SL
Nomina: ez da ageri ordaindu duen pertsonaz bestelako batek egin duenik gastu horren onespena.	X	X		X	
Fakturak: ez da ageri ordaindu duen pertsonaz bestelako batek egin duenik gastu horren onespena.	X	X		X	
Ordainagiriak: gastuaren onespena ez dago esanbidez jasota.	X	X		X	X
Barne-kontrolako organoak ez du kontrol finantzarioko urratsik egin.	X	X		X	X
Ez da auditoretzarik egin, azken bost urteotan bederen.	X	X	X	X	X
Banku-kontuen sinatze-araubideak modua ematen du pertsona bakarraren sinadurarekin jarduteko.	U ¹	X	X	U	X
2023ko abenduaren 31n eguneratu gabeko banku-kontuez xedatze baimena zuten pertsonak.			X		

(1) Taula honetan, U letrak adierazten du badagoela gutxienez ere kontu bat, zeinean pertsona bakarra agertzen baita entitatearen ordezkari gisa.



Behin-behineko txostenari egindako alegazioak





Nork: José María Cuende Vallejo jauna, Oltza Zendeako udaleko alkate bezala. IFZ: P3119300F. Helbidea: Angulo kalea, 2, Ororbia; posta-kodea: 31171, Nafarroa. Posta elektronikoa: cendea@ayuntamientoolza.com

2025eko ekainaren 19an (sarrera-zkia.: 2025-E-RC-989) jakinarazi zaio udal honi Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez onesten baita "Ordainketa-prozedurak 1.001etik 2.000 biztanlera bitarteko Nafarroako udaletan (2023)" izeneko behin-behineko fiskalizazio-txostena.

Hori dela-eta, behin-behineko txosten hori udal honi helarazi zaio, azter dezan eta, kasu bada, alegazioak aurkez ditzan 2025eko ekainaren 25era arte.

Horretarako emandako epean, udal honek honakoa aurkezten du:

ALEGAZIOA

"Udalen, erakunde autonomoen eta sozietate publikoen erantzukizuna" deritzon V. atalean (behin-behineko txostenaren 9. orrialdea) honako hau esaten da (azpimarra geurea da):

"Kontu-hartzailatza organoaren erantzukizuna da kontrol-funtzioa eta barne-fiskalizazioa egitea. Funtzio horrek barne hartzen du, udalen eta haien erakunde autonomoen esparruan, izaera ekonomikoko betebeharrak edo gastuak sortzeko modukoak diren egintzen aurreitazko fiskalizazioa, ordain-aginduaren kontu-hartze formala eta ordainketaren kontu-hartze materiala. Halaber, barne hartzen du udalen eta haien erakunde autonomo nahiz menpeko merkataritza-sozietateen kontrol finantzarioa".

Udal honen aburuz, aipaturiko erreferentzia osatugabea da.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 2ko 2/1995 Foru Legearen 244. artikulua dio kontu-hartze eginkizunaren xedea izanen dela toki-entitateen eta haien erakunde autonomoen egintzak fiskalizatzea, merkataritza-sozietateak aipatu gabe.

Egia da ezen 249. artikulua, kontrol finantzarioa arautzean, esaten duela "finantza-kontrolaren xede izanen da toki entitateen, horien erakunde autonomoen eta horien menpeko merkataritzako elkarteen zerbitzuen alderdi ekonomiko-finantzarioaren jarduna frogatzea".

Alabaina, behin-behineko txostenak ez du jasotzen aipatu 249. artikuluen 3. paragrafoak dioena (geurea da azpimarra):

3. Finantza-kontrola auditoretzako jardunbideen bidez eginen da, Sektore Publikoko auditoretza-arauen arabera".

Beraz, merkataritza-sozietateei dagokienez, barne-kontrolako eginkizunak betetzen dira jardueraren emaitzaren gainean a posteriori egiten den finantza-kontrolaren bitartez. Eta, aipatu arauan, kontrol hori ez zaio esanbidez eta ezinbestez kontu-hartzaileari esleitzen; izan ere, normalki, auditoretza-enpresen bitartez egiten da, Sektore Publikoko auditoretza-arauei heldurik. Hori guztia, ezertan galarazi gabe kontu-hartzaileak egoki deritzen jarraibideak jaulki ahal izatea.

Horregatik guztiagatik,

ESKATZEN DA:

Aurkeztutzat jo dadin alegazio hau, xede duena jaso dadila aipaturiko arau-erreferentzia hori "Ordainketa-prozedurak 1.001etik 2.000 biztanlera bitarteko Nafarroako udaletan (2023)" deritzon behin betiko fiskalizazio-txostenean.

Oltza Zendea, 2025eko ekainaren 24an.

Alkatea: José María Cuende Vallejo





Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna

Eskerrak ematen dizkiogu Oltza Zendeako alkateari, aurkeztu duen alegazioarengatik.

Horri buruz esan behar dugu ezen adierazten dituen gaiak finantza-kontrola egiteko moduari buruzkoak direla; gure txostena, ordea, mugatzen da zera ohartaraztera, araudiak kontu-hartze organoari esleitzen diola kontrol hori egitearen erantzukizuna. Horrenbestez, jotzen dugu behin-behineko txostenaren edukia ez dela aldatu behar.

Alegazioak behin-behineko txostenari eransten zaizkio, zeina behin betiko gisa ematen baita.

(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digitalki sinatua, alboan zehazten den egunean)

